

'LE MONDE DIPLOMATIQUE'-KO ZUZENDARIAK ARTELEKUN EMAN ZUEN HITZALDIA ATZO

Ramonet: «Lokalki pentsatu eta globalki jokatu beharra dago»

Joeren Analsiaren Nazioarteko V. Mintegia Ignacio Ramonet 'Le Monde Diplomatique' hilabetekariko zuzendariak emandako hitzaldi batekin zabaldu zen atzo eguerdian Donostiako Arteleku zentroan. Mundializazioaren arriskuak aztertu zituen Ramonetek atzoko hitzaldian.

Juan Luis Zabala / Donostia

IGNACIO RAMONET semiologo eta historialaria izan zen atzo hizlari Artelekun, Joeren Analsiaren Nazioarteko V. Mintegia zabalduz. *Le Monde Diplomatique* hilabetekariko zuzendaria da Ramonet, eta hainbat libururen egilea. Horietako bat Noam Chomsky idazle ezagunarekin elkarlanean idatzi zuen Ramonetek.

Egungo munduaren norabidea markatzen duten indarren aurrean, «ekinbide kolektibo internazionalista baten premia» dagoela esan zuen Ignacio Ramonetek atzo Artelekun egindako hitzaldian. Globalki pentsatu eta lokalki jokatzeko aldarria egiten duen esaldi ezaguna iruntzitar jarriz, Ramonetek lokalki pentsatu eta globalki jokatu beharra dagoela uste du. Egungo munduari buruz duen ikuspegia «ezkorra» dela onartu arren, «protesta orokorreko eta erreazio kolektiboko erantzun baten zantzuak» sumatzen hasia dagoela esan zuen Ramonetek, eta horrek «baikor» sentiarazten duela.



Ignacio Ramonet, atzo, Artelekun egindako hitzaldian.

RICARDO IRIARTE

Ignacio Ramonet: «Mundu osoan zehar gero eta demokrazia gehiago dago, baina demokrazia horiek gero eta balio eskasagoa dute»

paradigmak ere badu ordezkorik Ramonetek iritziz: merkaturia ari da makinaren lekua hartzen. Estatuak «makinen gisara» eraiki baziren ere, «gaur egun eredu mekanikoaren ordez eredu zibernetikoa ari da nagusitzen», esan zuen Ramonetek. «Egun ia-ia ez dago gure gizartean merkaturaren legeen arabera antolatzen ez den ekinbiderik, ezta kulturari, kiroletan edo are erlijioan ere», eta horren ondorioz «ongi-izatearen

haustura ez dago egitasmoaren aurrerabidearekin kontraesanean». Izan ere, merkaturaren legeei men eginez, gero eta normalagoztat jotzen da galtzaileak egotea, eta gero eta garrantzi txikiagoa du elkartasunak. Hori ez zen lehen gertatzen, Estatuak makina bat zenean, eta makinako pizea orok bere zeregina zuela uste zenean.

Ramoneten iritziz, komunikazioa eta merkaturia dira «bizi garen

eraikinaren zimendua, oinarria». Agintari politikoei gero eta garrantzi handiagoa ematen diote komunikazioari eta merkaturaren legeetara gero eta makurtuagoak daude. «Mundu osoan zehar gero eta demokrazia gehiago dago, baina demokrazia horiek gero eta balio eskasagoa dute», Ramonetek iritziz, merkatu finantziarioen gero eta menpekoagoak baitira. Horregatik, ez luke harrigarritzat joko erreazio bat sortzea herri-tarren artean. Erreazio horrek «globala» eta «internazionalista» izan beharko lukeelakoan dago Ramonet, finantza merkaturak ere halakoxeak direlako, globalak eta internazionalistak, eta erreazio horren hainbat zantzu sumatu izan duela esan zuen.

Fusioa eta fisioa

«GLOBAKI egoera geo-politiko enigmatiko baten aurrean gaude», esan zuen Ramonetek atzo bere hitzaldiaren hasieran. Berlingo harreria erori eta SESB desegin ondoren, erreferente garbirik ezean, «agintari politikoen nagusiek eta intelektualek ere ez dute egungo egoera ulertzen», Ramonetek dioenez.

Berak ere ulertu ez arren, «egungo munduaren deskribapen geo-politiko» egiteko ahalegina egin zuen hizlariak. Bi indar na-

gusi, elkarren aurkako bi dinamika aipatu zituen deskribapen hori egiten hasirik: «mintegi honen izenburuan aipatzen direnak: globalizazioa eta fragmentazioa; edo, fisika nuklearreko hitzekin esateko, fusioa eta fisioa».

Fusio dinamikaren adibidetzat Europako Batasunaren sorrera, Ipar Amerikako merkaturak batzeko asmoz sortutako NAFTA, eta Hego Amerikan, Magreben eta munduko beste hainbat bazterretan bultzatutako

merkatu bateratzeak aipatu zituen. Fisio dinamikaren adibideak, berriz, Europako Estatu guztietan daudela gogoratu zuen: autonomia, autogobernu edo independentzia eskaerak (Euskal Herria, Ipar Irlanda, Eskozia, Korsika... «eta baita inolako oinarri historikorik gabekoak ere, Padania kasu»).

«Interesgarriena», Ramonetek iritziz, bi dinamika edo indar horiek —fusioaren indar zentripetua eta fisioaren indar zentrifugoa—

«aldi berean eta leku geografiko berean gertatzen direla da». Hau da, Padaniak Italiatik bereizi eta Europako Batasunean lekua izan nahi du, eta Quebec-ek Kanadatik bereizi eta NAFTAko kide izan. «Fenomenoa XIX. mendean baino askoz konplexuagoa da», esan zuen Ramonetek. «Elementu gutxi batzuetan baino ez da bilatzen diferentzia, hizkuntzan, kulturari eta erlijioan nagusiki, eta ez zaio subiranotasun ekonomikoari begiratzen». X

Gustav Leonhardt ariko da Arabako Antzinako Asteako lehen kontzertuan

■ Gaur arratsaldean emango dio hasiera jaialdiaren XV. ekitaldiari

Erredakzioa / Gasteiz

GUSTAV LEONHARDT klabe jole holandarrak Arabako Antzinako Astearen XV. ekitaldia hasiko du gaur arratsaldeko 8:15etan Gasteizko San Pedro elizan. Leonhardt-ek Forqueray, D'Anglebert, Leroux eta Bach konposatzaileen piezak joko ditu.

Gustav Leonhardt munta handiko pertsonaia da antzinako musikaren arloan, eta horrela izan arren, ez du orain arte sekula jo Gasteizko jaialdian. Bakarlaria ezezik, zuzendaria ere bada, eta adituek garrantzi handikotzat jo dute Brügggen hirukotean egindako lana.

Leonhardt-ek denetarik egiten du: orain dela 30 urte Johann Sebastian Bach-en rola egin zuen Jean Marie Straub-en *Crónica de Ana Magdalena Bach* filmean; handik gutxira musika katedra lortu zuen Harvard-eko Unibertsitatean. Vienako Musika Akademiako zuzendari izana da, eta baita Harvard-eko Unibertsitateko irakasle ere.

Euskal Herrian maiz aritua da Gustav Leonhardt. Iragan abuztuan, esate baterako, Donostiako Musika Hama-bostaldian aritu zen Antzinako Musika zikloan. X

Paolo Mohovich Baleta Miarrizteko Maitaldian ariko da gaur gauean

Arantxa Hirigoien / Baiona

ZARAGOZATIK etorritako Paolo Mohovich baletak parte hartuko du gaur arratsean Miarrizteko kasino munitzalean, Miarrizteko Maitaldiaren programazioaren barruan. Hamar dantzari osatutako talde honen koreografoa Paolo Mohovich da. Dantzari profesional hau Italian sortua da eta dantza klasiko zein garaikidea landua du. 1993an aurkeztu zuen bere lehenbiziko obra koreografo gisa. Geroztik gaur gauean agertuko diren hamar dantzariekin taldea sortu du eta pieza ugari asmatu ditu. Paolo Mohovich-en abiapuntua dantza klasiko bada ere, koreografiaren ezaugarri ezberdinak eranstu ditu gaurkotatasunetik hurbil izateko.

Zaragozako baletako zuzendari honek 1995ean Voliline sari ospetsua eskuratu zuen, *Llir entre Cards* lanarekin. Obra hori hain zuzen izanen da Miarrizteko aurkeztuko dutena. Kataluniako Erdi Aroko musikak 'gundurik orduko gizartea islatuko duen dantzak eskainiko dituzte. X

Komunikazioa igurtzien leungarri gisa • Komunikazioaren definizio bitxia egin zuen hizlariak ikuspuntu horretatik: «Komunikazioa gizartea osatzen duten norbanakoen arteko igurtziak leuntzen dituen lubrifikatzailea da». Komunikazioa da egun, Ramonetek iritziz, sistemaren erantzuna. «Jbilgailua nora doan arduratu gabe, motorra ez dadila lehertu bihurtu ohi da kezka nagusi».

XVIII. mendean sortutako Mendebaldeko gizartearen beste